

ARTZINIEGA

1980

Behin betiko onarpena ematea Artziniegako herrigune historikoko oinezkoen zona arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Udal honek, 2013ko otsailaren 21ean egindako aparteko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea Artziniegako herrigune historikoko oinezkoen zona arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Ordenantza jendaurrean jarri zen 2013ko martxoaren 1eko ALHAOn (26 zk.) argitaraturiko iragarki baten bidez. Jendaurrean zegoela ez zen erreklamaziorik aurkeztu; beraz, behin betiko onartu eta honela idatzita gelditu da:

ARTZINIEGAKO HERRIGUNE HISTORIKOKO OINEZKOEN ZONA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**1. ARTIKULUA.- XEDEA ETA LEGE OINARRIA.**

Artziniegako herrigune historikora sartu eta han ibilgailuak aparkatu eta uzteko baldintzak arautzea da ordenantza honen xedea. Udalerriko zona horrek dituen ezaugarriengatik oinezkoen zona gisa atondu behar da, eta eremu horren barruan dauden bide guztiak oinezkoentzat gorde, ordenantza honek jasotzen dituen salbuespenekin.

Ondorioz, ordenantza honetan zera zehazten da: zer baldintza bete behar duten ordenantzak araututako taldeek zonara sartzeko, eta han ibilgailuak aparkatzeko eta uzteko.

Oinezkoen zonara sartzen diren ibilgailuek 10.000 kg-ko baimendutako gehieneko pisua (BGP) izango dute, eta zamalanak baino ezin izango dituzte egin. Pisu hori baino BGP handiagoa duten ibilgailuak herrigune historikora sartzeko udalaren baimena izan behar da nahitaez.

2. ARTIKULUA.- ORDENANTZA APLIKATZEKO ESPAZIO EREMUA.

Artziniegako oinezkoen zona adierazitakoa da ordenantza honen aplikazio eremua; hain zuzen ere, herrigune historikoak hartzen duen oinezkoen zona, hauxe zehatz-mehatz:

- Barrenkale
- Artekale
- Goienkale
- Goiko plaza
- Artekale plaza
- Agirre Lehendakariaren ibilbidea
- Beratza aldapa
- Dorreko aldapa
- Gernika hiribidea
- Hiriko atea
- Elizako kantoia
- Mirafloresko kantoia

Jarri beharreko seinaleak jarriko dira zonaren sarrera eta irteeretan; edonola ere, beste elementu mugikor batzuk erabili ahaliko dira, ibilgailurik sartu ez dadin eragindako zonan eta handik zehar zirkulatu ez dezaten.

Herrigunean bizi direnak beti sartu ahaliko dira bertara, baita garajeetara, gastronomia elkarteetara, saltegieta eta ostalaritza establezimenduetara doazenak ere, herrigunera sartzeko hurbiltasun txartelen bidez, eta honela arautuko dira sarrera eta irteerak:

- Sarrera kontrola Geltoki plazatik: ibilgailuen sarrera eta irteera

- Sarrera kontrola Hiriko atetik: irteera (pilotalekuko aparkalekura sartzeko gunea ez dadin bete herriguneko ibilgailuen sarrera eta irteerekin). Larrialdiko zerbitzuei eta udalak behar bezala emandako baimena dutenei sartzen utziko zaie; baita Hiriko ateko, Gernikako hiribideko, Dorreko aldapako, Goiko plazako, Goienkaleko eta Agirre Lehendakariaren ibilbideko erabiltzaileei ere.

3. ARTIKULUA.- OINEZKOEN LEHENTASUNA, ABIADURA MUGA, BIZIKLETAK.

3.1. Oinezkoek lehentasuna izango dute ibilgailuen aurretik, salbu eta larrialdi zerbitzuan ibili eta halaxe dabiltzala arauz adierazten dutenen aurretik.

ARTZINIEGA

1980

Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza reguladora de la zona peatonal del Casco Histórico de Artziniega.

Este Ayuntamiento, en sesión extraordinaria celebrada el día 21 de febrero de 2013, acordó la aprobación provisional de la modificación de la ordenanza reguladora de la zona peatonal del Casco Histórico de Artziniega.

Expuesta al público mediante anuncio insertado en el BOTHA nº 26 de fecha 1 de marzo de 2013 y no habiéndose presentado reclamaciones en el periodo de exposición, queda definitivamente aprobada, quedando redactada de la siguiente forma:

ORDENANZA REGULADORA DE LA ZONA PEATONAL DEL CASCO HISTÓRICO DE ARTZINIEGA**ARTÍCULO 1.- OBJETO Y FUNDAMENTO LEGAL.**

Esta ordenanza tiene por objeto regular las condiciones de acceso y estacionamiento en el Casco Histórico de la Villa de Artziniega, zona del municipio cuyas características justifican su configuración como Zona Peatonal, reservando la totalidad de las vías comprendidas dentro del ámbito de la misma al tráfico de peatones, con las excepciones contenidas en la presente Ordenanza.

En consecuencia, en esta Ordenanza se determinan las condiciones de acceso para aparcamiento y/o estacionamiento en la zona, para los colectivos regulados en ella.

El Peso Máximo Autorizado (PMA) de los vehículos que accedan a la zona peatonal será de 10.000 Kg. que únicamente podrán realizar labores de carga y descarga. Será preceptiva la autorización del Ayuntamiento cuando sea necesaria la entrada de vehículos al Casco Histórico de más de 10.000 Kg. de PMA.

ARTÍCULO 2.- ÁMBITO ESPACIAL DE APLICACIÓN.

El ámbito de aplicación de esta ordenanza está constituido por la zona declarada peatonal de la Villa de Artziniega, que comprende el Casco Histórico y, cuyo listado pormenorizado es el siguiente:

- Barrenkale
- Artekale
- Goienkale
- Goiko Plaza
- Artekale Plaza
- Paseo Lehendakari Agirre
- Cuesta Beratza
- Dorreko Aldapa
- Avenida Gernika
- Hiriko Atea
- Elizako Kantoia
- Cantón de Miraflores

La zona contará con la oportuna señalización en las entradas y salidas, sin perjuicio de la utilización de otros elementos móviles que impidan la entrada y la circulación de vehículos en la zona afectada.

Se garantizará siempre el acceso al casco a residentes, garajes, sociedades gastronómicas, comercios y establecimientos hosteleros, mediante tarjetas de acceso por proximidad, estando los accesos y salidas regulados de la siguiente manera:

- Control de acceso por Geltoki Plaza: entrada y salida de vehículos

- Control de acceso por Hiriko Atea: salida (con el fin de que no se sature la entrada al aparcamiento del frontón con entradas y salidas de vehículos del Casco). Únicamente se autorizará la entrada para los servicios de emergencia y los debidamente autorizados por el Ayuntamiento, así como los usuarios de Hiriko Atea, Avenida Gernika, Dorreko Aldapa, Goiko Plaza, Goienkale y Paseo Lehendakari Agirre.

ARTÍCULO 3.- PREFERENCIA DE LOS PEATONES, LÍMITE DE VELOCIDAD, BICICLETAS.

3.1. El peatón gozará de prioridad sobre los vehículos, exceptuando los que circulen en servicio de urgencia y así lo señalicen reglamentariamente.

3.2. Gehienez ere 15 km/ordu ibili beharko da oinezkoen bide guztietatik.

3.3. Bizikletak oinezkoen bideetatik arazorik gabe ibili ahalko dira, betiere 15 km/ordu edo hori baino mantsoago, oinezkoen eta euren artean metro bateko distantzia egongo delarik, eta martxaren noranzkoa zein, haien eskuinaldetik zirkulatuko dutelarik.

4. ARTIKULUA.- KONTROLERAKO GAILUAK. TRAFIKOA ARAUTZEN DUTEN ZUTOINAK.

Zutoin automatikoak jarrita kontrolatuko da zona kontrolatuko kaleetara sartzea. Haiek igo zein jaisteko, txartela edo kodea (teklak) erabiliko dute hara sartzeko baimena dutenek, eta horrela, ezin izango dira sartu baimenik ez duten ibilgailuak, edozein motatakoak direlarik ere.

Zona horietara sartzeko modua kontrolatu ahalko du udalak, horretarako, hain zuzen ere, instalaturiko kameren bidez. Ordulari tenporizadore baten bidez ere programatu ahalko da eskorak igo eta jaistea, udalak ezarritako egun eta orduetan.

Zutoinek banda magnetikoa izango dute, eta hari esker ezin izango da igo, baldin eta ibilgailuren bat bere zona barruan badago.

Zutoinak automatikoki igoko dira, behin ibilgailuak handik pasa eta gero, nola zona kontrolatura sartzean hala handik irtetean.

Bertara sartzeko informazio seinale bertikalak edo argi seinaleak jarriko dira.

5. ARTIKULUA.- ZEIN TITULARREK IZANGO DITUZTEN SARTZEKO TXARTELAK.

5.1. Oinezkoen zonan dagoen etxebizitzaren batean erroldaturikoek, txartela eskatzen badute eta etxebizitza horren jabeak edo errentadunak badira.

a) Beren erroldako etxebizitzan matrikulaturiko ibilgailurik badaukate: txartel bat emango da ibilgailu bakoitzeko. Gehienez ere 3 txartel emango dira etxebizitzako.

b) Ez badaukate ibilgailurik: txartel bat emango da etxebizitzako. Ez dute zertan bete errolda betekizuna udalerrian 6 hilabete baino gutxiago biziko direnek; halakoetan, txartel 1 emango da etxebizitzako.

Ez dute txartelik izango udalerrian etxebizitzarik ez duten edo bertan erroldatuta ez dauden bizilagunek.

5.2. Zona mugatuan dauden garaje aparkalekuen titularrek. Txartel bat emango da aparkalekuko eta ibilgailuko, aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ondoren eta 10 euro/txartela balio duen fidantza ordaindu ondoren.

5.3. Ordenantza honen espazio eremuan egiten den jardueraren bateko titular diren merkatari eta ostalariek. Txartel bat izango dute jarduerako. Baldin eta haien hornitzaileak oinezkoen zonara sartu behar badira ordutegi libretik kanpo, merkatari edo ostalariak bere sarrera txartela utzita sartuko dira. Edonola ere, merkatari edo ostalariek beren hornitzaileei esan beharko diete ahal dela ordutegi librean bertaratzeko.

Hornitzailea: zamalanak egiteko ibilgailu egoki baten bidez oinezkoen zonan dauden ostalaritzako establezimendu, saltoki edo etxe partikularrak hornitzeko lanak egiten dituzten garraiolariak.

5.4. Beste talde batzuek, hala nola, txokoek, anbulatorioek eta abarrek, txartel bat jasoko dute erakundeko edo taldeko.

ETXEBIZITZAK

Etxebizitzaren jabea da	Erroldatuta dago	Badauka ibilgailua	Txartel 1 ibilgailuko (3 gehienez)
		Ez dauka ibilgailurik	Txartel 1 etxebizitzako
	Ez dago erroldatuta		Txartel 1 etxebizitzako
Ez da etxebizitzaren jabea	Erroldatuta dago	Badauka ibilgailua	Txartel 1 ibilgailuko (3 gehienez)
		Ez dauka ibilgailurik	Txartel 1 etxebizitzako
	Ez dago erroldatuta		Ez zaio emango

GARAJEAK

Txartel 1 aparkalekuko, titularrarentzat

3.2. Todas las vías peatonales tendrán limitada la velocidad a un máximo de 15 km/h.

3.3. Las bicicletas podrán circular por las zonas peatonales libremente siempre que lo hagan a una velocidad no superior a 15 km/h, respetando en todo caso la distancia de un metro de separación a los peatones y circulando por su derecha en el sentido de la marcha.

ARTÍCULO 4.- DISPOSITIVOS DE CONTROL. PILONAS Y BOLLARDOS REGULADORES DEL TRÁFICO.

El control de acceso a las calles de la zona controlada se realizará por medio de pilonas automáticas que serán accionadas, para su elevación o descenso, mediante tarjeta o código (teclado) para autorizados, y que impedirán el acceso a toda clase de vehículos no autorizados.

El Ayuntamiento podrá controlar el acceso a los mismos a través de cámaras instaladas al efecto. Mediante reloj temporizador también podrán programarse la subida y bajada en días y horas fijados por el Ayuntamiento.

Las pilonas llevan incorporada una banda magnética, que evitará la elevación de la columna en el caso de encontrarse un vehículo dentro de su zona.

Las pilonas se elevarán automáticamente una vez hayan sido superados por el vehículo, tanto a la entrada como a la salida de la zona controlada.

Se dispondrá la colocación de señales informativas verticales o luminosas de acceso.

ARTÍCULO 5.- TITULARES QUE DISPONDRÁN DE TARJETAS DE ACCESO

5.1. Los empadronados en vivienda de la zona peatonal que lo soliciten y sean bien propietarios o arrendatarios de dicha vivienda

a) Si se dispone de vehículos matriculados en el domicilio en el que están empadronados: se otorgará 1 por vehículo. Con un máximo de 3 tarjetas por vivienda.

b) Si no se dispone de vehículo: se otorgará 1 tarjeta por vivienda. No será preciso cumplir el requisito de empadronamiento en aquellos casos en los que se resida en el municipio menos de 6 meses, en cuyo caso se otorgará 1 tarjeta por vivienda.

No dispondrán de tarjeta aquellos residentes, no propietarios de vivienda ni empadronados en el municipio.

5.2. Los titulares de plazas de aparcamiento (garajes) localizadas en la zona restringida. Se otorgará una tarjeta por plaza de aparcamiento y vehículo, previa presentación de la documentación requerida y previo abono del importe de la fianza que se establece en 10 euros por tarjeta:

5.3. Los comerciantes y hosteleros titulares de una actividad que se desarrolla en el ámbito espacial de la Ordenanza. Este colectivo dispondrá de 1 tarjeta por actividad. En caso de que proveedores de estos colectivos deban acceder a la zona peatonal fuera del horario libre, el comerciante u hostelero se encargará de darle acceso al mismo con su tarjeta de acceso. No obstante, los comerciantes u hosteleros deberán informar a sus proveedores de que se ajusten al horario de apertura establecido.

Proveedor: transportistas que mediante vehículos aptos para ello realicen tareas de carga y descarga para suministro de los establecimientos hosteleros, comercios o domicilios particulares ubicados en la zona peatonal.

5.4. Otros colectivos tales como Txokos, ambulatorio u otras recibirán 1 tarjeta por entidad o colectivo.

VIVIENDAS

Propietario de vivienda	Empadronado	Si vehículo	1 por vehículo (Max. 3)
		No vehículo	1 por vivienda
	No empadronado		1 por vivienda
No propietario de vivienda	Empadronado	Si vehículo	1 por vehículo (Max. 3)
		No vehículo	1 por vivienda
	No empadronado		No aplica

GARAJES

1 por plaza al titular

MERKATARI ETA OSTALARIAK

Txartel 1 jardueraren titular bakoitzeko

BESTE TALDE BATZUK: TXOKOAK, ANBULATORIOA, ABADENA, MOJAK, MUSEOA...

Txartel 1 erakundeko

Txartela mugagabea izango da, haren titularrak hura emateko arrazoi izan ziren betekizunak betetzen jarraitzen duen bitartean, eta kostuaren fidantza ordainketa bakarrean egingo da, txartela emate-rakoan, halaxe ezartzen baitu kasuan kasuko ordenantzak. Txartela itzultzean bueltatuko zaio titularrari harengatik emandako fidantza, bai gehiago ez duelako behar bai zerbait gertatu izanagatik galdu egin duelako hura edukitzeko eskubidea. Hori ez da aplikatuko araua hausteagatik kendu denean txartela, halakoetan galdu egingo baita fidantzagatik ordaindu dena.

Txartela galdu, lapurto edo gehiago ezin erabiltzeko moduan badago txarto erabili izanagatik, titularrak edo erabiltzaileak beste txartel bat eskuratu ahalko du, ordaindu beharreko fidantza ordaindu ondoren.

6. ARTIKULUA.- ZAMALANAK ZEIN ORDUTAN EGIN ETA ZENBAT DENBORATAN.

Ordu hauetan egin ahalko dira zamalanak oinezkoen zonan, eta gehienez ere denbora hau izango du bakoitzak:

Zonara sartzeko ordutegi librea:

Asteleheneretik ostiralera: 07:00etatik 19:00etara, etenik gabe, jaiegunetan izan ezik.

Larunbatetan: 06:00etatik 14:00etara, etenik gabe, jaiegunetan izan ezik.

Jaiegunak igandetat hartuko dira, ordutegiari dagokionez.

Gehienez ere zenbat denbora egon ahalko den bakoitza:

TALDEA	HERRIGUNE HISTORIKORA TXARTELAZ SARTZEKO ORDUTEGIA	ORDUTEGI LIBREA	BAKOITZA GEHIENEZ ZENBAT DENBORA EGON AHALKO DEN (zamalanak egiteko aparkatzea, aparkaleku gisa egokituta ez dauden zonetan)
Oinezkoen zonako etxebizitzaren jabeak edo errentadunak, udalerrian erroldatuak	Librea, 24 orduetan	Librea, 24 orduetan	10 minutu
Oinezkoen zonako etxebizitzaren jabeak, udalerrian erroldatuak EZ daudenak	Librea, 24 orduetan	Librea, 24 orduetan	10 minutu
Oinezkoen zonan bizi direnak, baina ez dira etxebizitzaren jabeak eta ez daude erroldatuta	Ez zaie txartelik emango	Asteleheneretik ostiralera, 07:00etatik 19:00etara, jaiegunetan izan ezik Larunbatetan, 06:00etatik 14:00etara, jaiegunetan izan ezik	10 minutu
Oinezkoen zonan dauden garajeen jabeak	Librea, 24 orduetan	Librea, 24 orduetan	10 minutu
Hornitzaileak eta garraiolariak ez diren beste profesional batzuk	Asteleheneretik ostiralera, 19:00etatik 07:00etara Larunbatetan, 14:00etatik 24:00etara Igande eta jaiegunetan, egun osoan	Asteleheneretik ostiralera, 07:00etatik 19:00etara, jaiegunetan izan ezik Larunbatetan, 06:00etatik 14:00etara, jaiegunetan izan ezik	30 minutu
Merkatariak/ostalariak	Librea, 24 orduetan	Librea, 24 orduetan	30 minutu
Beste talde batzuk: txokoak, ambulatorioa, abadea, mojak, museoa...	Librea, 24 orduetan	Librea, 24 orduetan	10 minutu
Oinezkoen zonan bizi ez direnak eta bisitari edo turistak	Ezin dira sartu	Asteleheneretik ostiralera, 07:00etatik 19:00etara, jaiegunetan izan ezik Larunbatetan, 06:00etatik 14:00etara, jaiegunetan izan ezik	10 minutu

COLECTIVO	HORARIO DEL ACCESO AL CASCO HISTÓRICO CON TARJETA	HORARIO DE ACCESO LIBRE	ESTANCIA MÁXIMA UNITARIA (Estacionamiento para carga y descarga en zonas no habilitadas como aparcamiento)
Propietarios o arrendatarios de viviendas de la zona peatonal, empadronados en el municipio	Acceso libre las 24 horas	Acceso libre las 24 horas	10 minutos
Propietarios de viviendas de la zona peatonal, NO empadronados en el municipio	Acceso libre las 24 horas	Acceso libre las 24 horas	10 minutos
Residentes en la zona peatonal no propietarios y no empadronados	No aplica	De lunes a viernes de 7:00 a 19:00, excepto festivos Sábados de 6:00 a 14:00, excepto festivos.	10 minutos
Propietarios de garajes ubicados en la zona peatonal	Acceso libre las 24 horas	Acceso libre las 24 horas	10 minutos
Proveedores y otros profesionales no transportistas	De lunes a viernes de 19:00 a 7:00 Sábados de 14:00 a 24:00 Domingos y festivos: todo el día	De lunes a viernes de 07:00 a 19:00 h, excepto festivos Sábados de 6:00 a 14:00, excepto festivos	30 minutos
Comerciantes/hosteleros	Acceso libre las 24 horas	Acceso libre las 24 horas	30 minutos
Otros colectivos: txokos, ambulatorio, cura, monjas, Museo	Acceso libre las 24 horas	Acceso libre las 24 horas	10 minutos
Residentes fuera de la zona peatonal así como visitantes o turistas	Sin acceso	De lunes a viernes de 07:00 a 19:00 h, excepto festivos Sábados de 6:00 a 14:00, excepto festivos	10 minutos

7. ARTIKULUA.- APARKALEKUA.

Señale bertikalen bidez adierazitako zonetan baino ezin izango da aparkatu ordenantza honen eskumen esparruaren barruan:

COMERCIANTE Y HOSTELEROS

1 por titular de la actividad

OTROS COLECTIVOS: TXOKOS, AMBULATORIO, CURA, MONJAS, MUSEO...

1 por entidad

El periodo de vigencia de la tarjeta será indefinido mientras su titular ostente los requisitos que motivaron su concesión y deberá abonarse en pago único la fianza por el coste en la expedición de la tarjeta, según lo establecido en la Ordenanza correspondiente. El importe abonado de la fianza será devuelto a su titular en el momento en que proceda a la devolución de la tarjeta por serle innecesaria o por haber perdido con carácter sobrevenido el derecho a poseerla. Esto no será aplicable en los casos de retirada de la tarjeta por infracción, en cuyo caso se perderá el importe de la fianza.

En caso de pérdida, robo o inutilización de la misma debido a su mal uso, su titular o usuario podrá disponer de una nueva tarjeta, previo abono de la fianza correspondiente.

ARTÍCULO 6.- HORARIOS Y TIEMPOS PARA CARGA Y DESCARGA.

El régimen de horarios de acceso y tiempo máximo unitario de permanencia para carga y descarga en la Zona Peatonal será el siguiente:

Horario de acceso libre:

De lunes a viernes: de 7:00 h a 19:00 h ininterrumpidamente, excepto festivos.

Sábados: de 6:00 h a 14:00 h ininterrumpidamente, excepto festivos.

Festivos consideración horaria de domingo.

El tiempo de estancia máxima unitaria será el siguiente:

ARTÍCULO 7.- APARCAMIENTO
El aparcamiento dentro de la zona competencial de la presente ordenanza se limitará a las zonas indicadas mediante señalización vertical:

- Artekale plazan
 - Goiko plazan
 - Kultur Etxearen aurrean dagoen aparkalekuan, elizako kantoian
 - Gernika hiribidean
 - Agirre Lehendakariaren ibilbidean
- Ezin izango da aparkatu inola ere:
- Goiko plazako iturriaren inguruan
 - Seinale bertikalik ez duten zona guztietan

8. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK.

1. Lehengo ordutegien araubideak ez die eragingo ibilgailu hauek zerbitzua emateko egin behar duten zirkulazio eta aparkatze lanei:

a) Suhiltzaileek, ehorztetxeek, abadeak, polizia, anbulantziek eta udal langileek zerbitzua emateko dituzten ibilgailuek; bai eta, oro har, zerbitzu publikoak emateko beharrezkoak direnek ere. Horiei guztiei gako bat edota sarrera txartel bat emango zaie oinezkoen zonara sartzeko.

b) Gaixoak edo mugikortasun mugatua duten pertsonak zona barruko higiezin batera edo handik kanpora eramaten dituzten ibilgailuek, zeinei gako bat edota sarrera txartel bat emango zaie oinezkoen zonara sartzeko.

c) Oinezkoen zonako garajeren batean aparkaleku bat jabetzan edo errentan dutenen ibilgailuek, haien zonan bizi zein ez. Ibilgailu horiek ez dute ordutegi mugarik zonara sartzeko, baina ezin izango dira aparkatu ordenantza honen aplikazio eremuan, eta kontrolatu egingo dira 9. artikuluan xedatutako kudeaketa sistemaren bidez.

d) Salbuespenetan (etxe aldaketak, obrak eta ezbeharren konponketak, eta antzekoak) zonara sartzen diren ibilgailuek, baldin eta ez badago beste modurik zamalanak egiteko hartarako orduetan, eta udalak alde aurretik baimena emanda.

e) Bizikletek.

f) Merkataritza banaketa lanak egiten dituzten motozikleta eta ziklomotorrek, zer establezimenduri zerbitzu ematen dieten, haien publikitateaz behar bezala identifikaturik.

g) Obra larriak gauzatzeko direnek, baimena emateari buruzko dekretuan ezarritakoa oinarri.

2. Eman beharreko administrazio ebazpena emango da kasu horietan zonara sartzeko araubidea zehazteko.

3. Ezin izango da sartu, inola ere, oinezkoen zonara ez autokarabari, ez atoirik, ez quadrik.

4. Ezin izango dira aparkatu edo utzi, inola ere, 2.000 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko pisua (BGP) duten furgonetak, ez eta nekazaritza ibilgailuak eta quadak ere.

9. ARTIKULUA.- KUDEAKETA, ZAINTZA ETA KONTROL SISTEMA.

Ordenantza hau beteko dela bermatzeko, kudeaketa eta kontrol zerbitzua ezartzen da, behar adina baliabide materialez eta giza baliabidez hornitua, eta zerbitzu horrek berak egin beharko du Artziniegako Trafiko eta Aparkaleku Ordenantza betetzen dela kontrolatzeko lana.

Kudeaketa sistema, zehatz-mehatz, honela gauzatu da:

a) TAG txartelaren bidez, oinezkoen zonan bizi baina garajerik ez dutenentzat, edo oinezkoen zonan garaje komunitarioko aparkaleku baten gainean eskubide pertsonala edo erreala duten titularrek izendaturiko ibilgailuen erabiltzaileentzat, zonan bizi zein ez. Txartela arauak oinarri eduki eta erabiltzeak zonara sartzeko baimena emango du, txartel bat erabilita etxebizitzako edo ibilgailuko.

b) TAG txartelaren bidez, hornitzaileentzat, merkataritza/ostalarientzat eta profesional autonomoentzat.

10. ARTIKULUA.- OINEZKOEN ZONAKO ETXEBIZITZEN JABEEN ETA ERRENTADUNEN ARAUBIDEA.

10.1. OINEZKOEN ZONAKO ETXEBIZITZEN JABE EDO ERRENTADUN IZANIK, UDALERRIAN ERROLDATUTA DAUDENEN ARAUBIDEA.

Oinezkoen zonan erroldaturiko jabe edo errentadunek kasu hauetan lortu ahalko dute TAG txartela:

10.1.1. Ez badaukate ibilgailurik: txartel bat eskatu ahalko dute etxebizitzako, hauek aurkeztuta:

- Artekale Plaza
 - Goiko Plaza
 - Aparcamiento frente a la Kultur Etxea en Elizako Kantoia
 - Avenida Gernika
 - Paseo Lehendakari Agirre
- Quedan explícitamente excluidas:
- Entorno de la fuente de Goiko Plaza.
 - Todas las zonas que no dispongan de la correspondiente señalización vertical

ARTÍCULO 8.- EXCLUSIONES.

1. El anterior régimen de horarios no afectará a la circulación ni al estacionamiento necesario para la realización del servicio de los siguientes vehículos:

a) Los del servicio de Bomberos, servicios funerarios, cura, los del servicio de Policía, las ambulancias, servicios municipales y, en general, los que sean necesarios para la prestación de servicios públicos, a los cuales se les facilitará una clave de acceso a la zona peatonal y/o tarjeta de acceso.

b) Los servicios que transporten enfermos o personas con movilidad reducida a un inmueble de la zona o fuera de ella, a los cuales se les facilitará una clave de acceso a la zona peatonal y/o tarjeta de acceso.

c) Los vehículos de propietarios o arrendatarios de una plaza de garaje en la Zona Peatonal, sean o no residentes en la zona. Estos vehículos no tienen restricción horaria de acceso, pero no podrán estacionar en el ámbito de aplicación de la presente Ordenanza y serán objeto de control mediante el sistema de gestión que se regula en el artículo 9.

d) En casos extraordinarios (mudanzas, obras y reparación de siniestros, o supuestos análogos), y siempre que no sea posible o no exista otro modo de realizar la carga y descarga dentro de los horarios establecidos previa autorización por parte del Ayuntamiento.

e) Las bicicletas.

f) Las motocicletas y ciclomotores que realicen tareas de reparto comercial debidamente identificados con la publicidad del establecimiento para el que presten sus servicios.

g) Los vinculados a la ejecución de obras mayores, en los términos fijados en el Decreto de concesión de la licencia.

2. El régimen de acceso, en estos supuestos, se determinará mediante la correspondiente resolución administrativa.

3. Queda totalmente restringido el acceso a la zona peatonal de autocaravanas, remolques y quads.

4. Quedan totalmente prohibido el estacionamiento o aparcamiento de furgonetas cuyo peso máximo autorizado (PMA) sea superior a 2.000 Kg., los vehículos agrícolas y quads.

ARTÍCULO 9.- SISTEMA DE GESTIÓN, VIGILANCIA Y CONTROL

Al objeto de garantizar el cumplimiento de esta Ordenanza, se establece un servicio de gestión y control dotado de los medios materiales y personales necesarios, que será el mismo que tenga encomendado el servicio de control del cumplimiento de la Ordenanza de Tráfico y Aparcamiento de la Villa de Artziniega.

El sistema de gestión, en particular, se desarrollará:

a) Para residentes en la Zona Peatonal sin garaje en la zona o vehículos designados por los titulares de un derecho personal o real sobre una plaza de garaje comunitario en la zona peatonal, sean o no residentes en la zona, mediante tarjeta TAG, cuya posesión y utilización legítimas autorizan un régimen de acceso mediante una tarjeta por vivienda o vehículo

b) Para proveedores, comerciantes/hosteleros y profesionales autónomos, mediante TAG.

ARTÍCULO 10.- RÉGIMEN DE PROPIETARIOS Y ARRENTADARIOS DE VIVIENDAS DE LA ZONA PEATONAL

10.1. RÉGIMEN DE PROPIETARIOS O ARRENTADARIOS DE VIVIENDAS DE LA ZONA PEATONAL EMPADRONADOS EN EL MUNICIPIO

Tratándose de propietarios o arrendatarios empadronados en esa zona podrán obtener tarjeta TAG:

10.1.1. Si no disponen de vehículo: podrán solicitar 1 tarjeta por vivienda presentando:

- a) Eskaera: inprimaki ofiziala beteta.
- b) Familia unitateko kide guztiak jasotzen dituen ziurtagiria.

10.1.2. Ibilgailurik badaukate: txartel bat eskatu ahalko dute ibilgailuko, hauexek aurkeztuta:

- a) Eskaera: inprimaki ofiziala beteta.
- b) Familia unitateko kide guztiak jasotzen dituen ziurtagiria.

c) Udalerriko bizilagunen izenean matrikulaturiko ibilgailuen zirkulazio baimenaren kopia, baldintza hauekin:

- Ibilgailua pertsona fisikoren baten izenean matrikulatuta egon behar da. Hark Artziniegako bizilaguna izan behar du, udal erroldan halaxe egon behar da alta emanda, eta ordenantza honen aplikazio eremuaren barruko etxebizitzaren batean inskribatuta egon behar du. Ondorio horietarako, Trafikoko Lurralde Buruzagitzak egindako zirkulazio baimenean ibilgailuaren jabea dela dioen hura izango da ibilgailuaren jabea.

- Bera izan behar da udal erroldan ageri den etxebizitza, ohikoa, eta ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri dena.

Halaber, oinezkoen zonan bizi den pertsonak bere enpresak lagatako ibilgailurik badauka, hura enpresarena izan zein enpresak finantza errentamenduko kontratu bat (leasing edo renting) sinatuta lortua, berdin lortu ahalko du TAG txartela, hainbat ziurtagiri aurkeztuta, hain zuzen ere, lehengo a) eta b) idatz zatietan xedatutako agiriez gain: ibilgailua enpresarena dela edo hura kontratu bidez eskuratu duela egiaztatzen duen agiria, eta enpresak egindako beste agiria bat ziurtatuz eskatzaileak baino ez darabilera ibilgailua, hura lan ordutik kanpo erabili dezakeela, eta ibilgailu hori erabiltzea gauzazko ordainsari bezala zergapetzen dela pertsona fisikoren errentaren gaineko zergaren aitorpean.

10.2. OINEZKOEN ZONAKO ETXEBIZITZEN JABE EDO ERRENTADUN IZANIK, UDALERRIAN ERROLDATUTA EZ DAUDENEN ARAUBIDEA.

Oinezkoen zonan erroldatuta EZ dauden jabe edo errentadunek, ibilgailua eduki zein ez, txartel bat lortu ahalko dute etxebizitzako, hauexek aurkeztuta:

- Eskaera: inprimaki ofiziala behar bezala beteta
- Etxebizitzaren titularrak izatearen agiria edo errentamendu kontratua

11. ARTIKULUA.- OINEZKOEN ZONAN GARAJE APARKALEKUAK DITUZTEN JABEEN ARAUBIDEA.

Oinezkoen zonan garaje aparkalekuren bat duten titularrek edo errentadunek, bertan bizi zein ez, ibilgailu bat identifikatu dezakete garaje aparkaleku bakoitzeko, aparkalekuaren gainean jabetza edo errenta eskubidea dutela egiaztatuta ondoren.

Hauexek aurkeztu beharko dira:

- Eskaera: inprimaki ofiziala behar bezala beteta
- Garaje aparkalekuaren jabea izatearen agiria edo errentamendu kontratua

Artziniegako Udaleko trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren erroldan alta emanda dagoen ibilgailua bada, zerga hori ordainduta izan beharko du.

Edonola ere, txartelak ezin izango dira pilatu, bizilaguna izanda etxebizitzagatik eta garajeagatik txartela lortuz gero, eta gehienez ere hiru txartel eduki ahalko dira.

12. ARTIKULUA.- OSTALARI, MERKATARI ETA BESTE TALDE BATZUEN ARAUBIDEA OINEZKOEN ZONAN.

Ordenantza honen espazio eremuan egiten den jardueraren bateko titular diren merkataria eta ostalariek txartel bat eduki ahalko dute jardueraren titularreko.

Hauexek aurkeztu beharko dituzte:

- Eskaera: inprimaki ofiziala beteta.

13. ARTIKULUA.- KASU BEREZIAK.

Udalak aztertuko du zer irtenbide eman, eta kasuan kasuko batzordeak baloratuko du hura.

14. ARTIKULUA.- XEDAPEN ERKIDEAK.

14.1. Artziniegako Udalak behar adina aldiz egiaztatuko du egiaztatu beharrekoa ofizioz, ordenantza honetan jasoriko txartelak eman

a) Solicitud en el impreso oficial.

b) Certificado en el que aparezcan todos los miembros de la unidad familiar.

10.1.2. Si disponen de vehículo: podrán solicitar 1 tarjeta por vehículo presentando:

a) Solicitud en el impreso oficial.

b) Certificado en el que aparezcan todos los miembros de la unidad familiar.

c) Copia del permiso de circulación de los vehículos matriculados a nombre de personas residentes en el municipio con los siguientes requisitos:

- Que el vehículo esté matriculado a nombre de persona física, residente en Artziniega, dada de alta como tal en el Padrón Municipal, e inscrita en algún domicilio radicado dentro de la zona de aplicación de la presente Ordenanza. A estos efectos, se considerará propietario del vehículo a quien así conste en el permiso de circulación expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico.

- Que el domicilio habitual, que consta en el Padrón Municipal y en el permiso de circulación de vehículos sea el mismo.

Asimismo, en los casos que la persona residente en la zona peatonal disponga de un vehículo cedido por su empresa, bien sea propiedad de ésta, bien la empresa lo haya adquirido mediante la suscripción de un contrato de arrendamiento financiero (leasing o renting), podrá obtener también la tarjeta TAG aportando junto a la justificación de lo dispuesto en las letras a) y b) anteriores, acreditación de la propiedad o contrato de la empresa sobre el vehículo y documento extendido por la empresa en el que se acredite que el solicitante es el único y exclusivo usuario del vehículo, que está autorizado para disponer del vehículo fuera del horario de trabajo y que el uso del citado vehículo tributa como retribución en especie a efectos de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

10.2. RÉGIMEN DE PROPIETARIOS DE VIVIENDAS DE LA ZONA PEATONAL NO EMPADRONADOS EN EL MUNICIPIO

Tratándose de propietarios o arrendatarios NO empadronados en esa zona dispongan o no dispongan de vehículo podrán obtener 1 tarjeta por vivienda presentando:

- Solicitud en el impreso oficial, debidamente cumplimentado.
- Titularidad de la vivienda o contrato de arrendamiento.

ARTÍCULO 11.- RÉGIMEN DE PROPIETARIOS DE PLAZAS DE GARAJE EN LA ZONA PEATONAL

En el caso de titulares o arrendatarios de plaza de garaje en la Zona Peatonal, sean residentes o no residentes, previa acreditación del derecho de propiedad o arrendamiento de su plaza, podrán identificar un vehículo turismo por plaza de garaje.

Se deberá presentar:

- Solicitud en el impreso oficial, debidamente cumplimentado
- Titularidad de la propiedad o contrato de arrendamiento de la plaza de garaje

Si se tratara de un vehículo dado de alta en el Padrón del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica del Ayuntamiento de Artziniega deberá estar al corriente en el pago de dicho Impuesto.

No obstante las tarjetas no serán acumulables en el caso de ser residente y obtener tarjeta por vivienda y por garaje, no pudiendo superar el máximo de tres tarjetas.

ARTÍCULO 12.- RÉGIMEN DE HOSTELEROS, COMERCIANTES Y OTROS COLECTIVOS EN LA ZONA PEATONAL

Los comerciantes y hosteleros titulares de una actividad que se desarrolla en el ámbito espacial de la ordenanza podrán acceder a una tarjeta por titular de la actividad.

Deberán presentar:

- Solicitud en el impreso oficial.

ARTÍCULO 13.- CASOS ESPECIALES

Se estudiará la solución en el Ayuntamiento que será valorada por la comisión correspondiente.

ARTÍCULO 14.- DISPOSICIONES COMUNES.

14.1. El Ayuntamiento de Artziniega podrá efectuar, de oficio, cuantas comprobaciones estime oportunas antes de emitir las tarjetas

aurretik, ordenantzak xedatutako baldintzak eta betekizunak betetzen direla ziurtatzeko.

14.2. Ordenantza honetan eskatutako agiriez eta egin beharreko egiaztapenak egin beharraz gain, Artziniegako Udalak zera eska diezaioke interesdunari: beharrezkotzat jotzen dituen behar adina agiri aurkezteko, behar bezala justifikatu ez duen edozein alderdi egiaztatzeko.

14.3. TAG txartelerako egiten den eskaerarekin batera fidantza ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztu behar da.

14.4. Erabiltzaile baimendun guztiek nahitaez jakinarazi beharko diote Artziniegako Udalari, hamabost (15) egun balioduneko epean, aldaketarik egon den ibilgailuen titulartasunean, garaje aparkalekuaren jabetzan edo errentamenduan, jabearen bizilekuan, eta txartela eta bereizgarriak emateko kontuan hartu diren gainerako datu eta inguruabar guztietan. Ez badute egiten, Artziniegako Udalak ahalmena izango du txartela edota bereizgarria kentzeko eta berritzeko eskaerak ukatzeko gutxienez urtebetez (1) eta gehienez hiru (3) urtez; horrez gain, zehapenak jarri ahalko ditu, hala badagokio.

15. ARTIKULUA.- ARAU HAUSTEAK: XEDAPEN OROKORRAK.

Ordenantza honetako edozein artikuluk xedatutakoa hautsi edo betetzen ez bada, trafiko antolamenduko arau haustetzat joko da, eta arau hauek ezartzen dutena oinarri zehatuko da: martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak -Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua-, hau da, bere V. tituluak, hura garatzen duen erregelamenduak, eta haiekin bat datozen gainerako lege xedapenek.

Arau hausterik egiten bada zehapenak jarriko dira lege prozedura bati jarraituz, hain zuzen ere, otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuak -horren bidez onartu egiten da Trafikoaren, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren arloko Zehapen Prozeduraren Erregelamendua- edo legez edo arauz hura ordeztzen duen beste arauen batek ezarritako prozedurari.

Ordenantza hau hausteagatik egindako salaketak izapidetuko ditu aginte eskudunak, kasu honetan Ertzaintzak, eta edozeinek salatu dezake arau haustea.

Arau haustea nork egin duen esan behar du ibilgailuaren titularrak, hala eskatuz gero. Ez badu betetzen betebeharrak kasuan kasuko prozedura izapidetan, inolako arrazoirik eman gabe, 15.3.b) artikuluko jasoriko arau haustearen egile gisa zehatuko da. Ordenantza honek xedatzen ez duenarako, Bide Segurtasuneko Legeak eta hura garatzeko ematen diren arau guztiek ezarritakoa hartuko da oinarri.

Ordenantza honetako edozein zehaztapen haustea edo ez betetzea joko da arau haustetzat. Lau arau hauste mota daude:

15.1. A MOTAKO ARAU HAUSTEAK: 30 euro (ARAU HAUSTE ARINA): bakoitzak gehienez ere duen denbora gainditzea, 10 minutu baino gutxiago.

15.2. B MOTAKO ARAU HAUSTEAK: 60 euro (ARAU HAUSTE ARINA): bakoitzak gehienez ere duen denbora gainditzea, 10 minutu edo gehiago.

15.3. C MOTAKO ARAU HAUSTEAK: 90 euro + TXARTELA KENTZEA (ARAU HAUSTE ARINA).

a) Artziniegako Udalari ez jakinaraztea, hamabost egun balioduneko epean, aldaketarik egon den ibilgailuen titulartasunean, jabearen bizilekuan, garaje komunitarioko aparkalekuaren jabetzan edo errentamenduan, eta txartela eta bereizgarriak emateko kontuan hartu diren gainerako datu eta inguruabar guztietan.

b) Arau haustearen erantzulea ustez izan den gidaria ez identifikatzea, ibilgailuaren jabeari hura identifikatzeko eskatu bazaio.

c) Titularrak TAG txartela lagatzea, baimenik ez duten ibilgailuek erabil dezaten. Borondatez laga dela ulertuko da, lapurtu edo galdu izana salatzen ez bada.

15.4. D MOTAKO ARAU HAUSTEAK: 150 euro + TXARTELA KENTZEA (ARAU HAUSTE LARRIA): baimenik ez duten ibilgailuak oinezkoen zonara sartzea.

contempladas en la presente Ordenanza, al objeto de verificar el cumplimiento de las condiciones y requisitos exigidos en ésta.

14.2. Además de la documentación a que se refiere esta Ordenanza y las comprobaciones que, en su caso, se realicen, el Ayuntamiento de Artziniega podrá exigir al interesado que aporte cuantos documentos considere necesarios para acreditar cualquier extremo que no apareciera debidamente justificado.

14.3. Todas las solicitudes de la TAG deberán acreditar junto con la solicitud la justificación del abono de la fianza.

14.4. Todos los usuarios autorizados están obligados a comunicar al Ayuntamiento de Artziniega, en el plazo de quince (15) días hábiles, cualquier modificación habida con respecto a la titularidad de los vehículos, variación en la propiedad o condición de arrendatario de las plazas de garaje, residencia del propietario y demás datos y circunstancias tenidas en cuenta en la concesión de tarjetas y distintivos. Si así no lo hicieren, el Ayuntamiento de Artziniega estará facultado para retirar la tarjeta y/o distintivo y denegar la renovación durante un período mínimo de un (1) año y máximo de tres (3) años, además de las sanciones que, en su caso, pudieren imponerse.

ARTÍCULO 15.- INFRACCIONES: DISPOSICIONES GENERALES.

La contravención o incumplimiento de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza tendrán la consideración de infracción a las normas de ordenación de tráfico y se sancionarán en virtud de lo establecido en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial en su título V, su reglamento de desarrollo y demás disposiciones legales concordantes.

Las infracciones traerán consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido en el Real Decreto 320/1994, de 25 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento Sancionador en materia de Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial o, el que legal o reglamentariamente le sustituya.

La autoridad competente, en este caso la Ertzaintza, emitirán las denuncias debidas a infracciones a esta Ordenanza pudiendo denunciar la infracción cualquier particular.

El titular del vehículo, debidamente requerido para ello, tiene el deber de identificar al responsable de la infracción. Si incumpliera esta obligación en el trámite procedimental oportuno, sin causa justificada, será sancionado como autor de la infracción contemplada en el artículo 15.3.b). En lo no previsto en la presente Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ley de Seguridad Vial y demás normativa que en desarrollo de la anterior se dicte.

Se considera infracción la contravención o el incumplimiento de cualquiera de las determinaciones de esta Ordenanza. Las infracciones se subdividen en cuatro tipos:

15.1. INFRACCIONES TIPO A: 30 euros (LEVES) Rebasar en menos de 10 minutos el tiempo máximo unitario de estancia permitido.

15.2. INFRACCIONES TIPO B: 60 euros (LEVES) Rebasar en 10 minutos o más el tiempo máximo unitario de estancia permitido.

15.3. INFRACCIONES TIPO C: 90 euros + RETIRADA TARJETA (LEVES)

a) No comunicar al Ayuntamiento de Artziniega, dentro del plazo de quince días hábiles, cualquier modificación habida con respecto a la titularidad de los vehículos, residencia del propietario, titularidad o arrendamiento de la plaza de garaje comunitario y demás datos y circunstancias tenidas en cuenta en la concesión de tarjetas o distintivos.

b) No identificar al conductor presuntamente responsable de la infracción, cuando el propietario del vehículo hubiere sido requerido para ello.

c) Cesión del titular de la tarjeta TAG para su uso por vehículos no autorizados. Se entenderá que ha existido cesión voluntaria mientras no conste denuncia de robo o extravío de la misma.

15.4 INFRACCIONES TIPO D: 150 euros + RETIRADA TARJETA (GRAVES) Acceso a la Zona Peatonal por vehículos no autorizados.

16. ARTIKULUA.- ZEHAPENAK.

Ordenantza honek jasotzen duen arau hausterik eginez gero, isun bat jarrita zehatuko da, artikuluko honen hurrengo idatz zatian xedaturiko zenbatekoekin. Gainera, kasuan kasuko txartela kenduko da, 15. artikuluko 3. paragrafoan (C motako arau hausteak) jasotako arau hausteren bat eginez gero, eta txartelaren titularrak ezin izango du beste txartelik lortu, berdin dio zein motatakoa den, gutxienez urtebetez eta gehienez hiru urtez.

A motako arau hausteek 30 euroko isuna izango dute; B motakoek, 60koa; C motakoek, 90 eurokoa eta gainera txartela kenduko da gutxienez urtebetez (1) eta gehienez hiru (3) urtez, eta D motakoek 150 euroko isuna izango dute eta txartela kenduko da behin betiko.

Ordenantza hau hausteagatik 15. artikulurekin bat etorri bidezko diren zehapenak bateragarriak izango dira trafikoko arauak hausteagatik, batez ere noranzko debekatuen seinaleak ez errespetatzeagatik, bidezko den beste edozein zehapenekin.

A eta B motako zehapenen zenbatekoak ehuneko 30 jaitsita ordaindu ahalgo dira, baldin eta zehapen prozedura abiarazi izanari buruzko dekretua jakinarazi eta hurrengo 30 egunetan ordaintzen badira.

Zehapena ordaindu izanak ez du esan nahi ibilgailu salatua oinezkoen zonan berdin egon daitekeenik, zonara sartzeko orduen eta han egoteko bakoitzak gehienez duen denboraren sistema aplikatuta.

17. ARTIKULUA.- IBI LGAILUA KENTZEA.

17.1. Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinaren bidez onartu egiten baita Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua, 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, kendu egingo da ibilgailua, baldin eta baimenik izan gabe ordenantza honetako espazio eremuaren barruan badago.

17.2. Halakoetan, interesduna ezin izango da babestu zehapena lehenago ordaintzeko aurreko artikulua jasoriko eskubidean.

17.3. Bide publikotik ibilgailuak kentzeko zerbitzuagatik eta hura udal gordetegietan egoteagatik kasuan kasuko zerga ordenantzek xedaturiko tasak sorrazaziko dira, eta ibilgailua itzuli baino lehen ordaindu beharko dira; horrez gain, zehapenak jarri ahalgo dira, hala badagokio.

XEDAPEN GEHIGARRIAK**LEHENENGOA.**

Alkate-lehendakariak eten egin ahalgo du ordenantzaren aplikazioa, bere lurralde eremu guztian edo zati batean, egoki irizten dion aldietan edo egunetan, edo interes publikoak hala eskatzen duenean.

BIGARRENA.

Alkate-lehendakariak aldarazi egin ahalgo du ordenantza honetako txartelen indarraldia -luzatuz zein laburtuz-, baldin eta premiazko arrazoirik bada tarteko edo interes publikoko beste arrazoirik, betiere behar bezala justifikatuak.

AZKEN XEDAPENAK**LEHENENGOA.**

ALHAOn osorik argitaratu eta hogeit egunetara jarriko da indarrean ordenantza hau.

BIGARRENA.

Ordenantza honek xedatzen ez duenarako, eta aplikatu beharrekoa bada, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide segurtasunari buruzko Legeak, Zirkulazio Erregelamenduak eta haiek garatzeko xedapen guztiek ezarritakoa hartuko da oinarri, ordenantzaren ordez.

HIRUGARRENA.

Ordenantza honek zehapenarako ezarritako zenbatekoak berrikusi egin ahalgo dira; betiere hiru urterik behin, alkate-lehendakariaren dekretu bidez, eguneratuko dira.

Artziniega, 2013ko apirilaren 10a.- Alkatea, AGURTZANE LLANO CUADRADO.

ARTÍCULO 16.- SANCIONES

Las infracciones tipificadas en esta Ordenanza serán sancionadas con una multa, en las cuantías que se señalan en el apartado siguiente de este artículo. Se impondrá, además, la sanción de retirada de la tarjeta de que se trate, si la infracción cometida fuere alguna de las tipificadas en el apartado 3 del artículo 15 (infracciones tipo C), no pudiendo el titular de la tarjeta obtener otra, de la clase que sea, durante un período mínimo de un año y máximo de tres años.

Las infracciones de tipo A serán sancionadas con una multa de 30 euros; las de tipo B, con multa de 60 euros; las de tipo C, con multa de 90 euros más retirada de tarjeta por un período mínimo de un (1) año y máximo de tres (3) años; y la de tipo D, con multa de 150 euros y retirada definitiva de tarjeta.

Las sanciones que procedan por infracciones a la presente Ordenanza de acuerdo con el artículo 15 serán compatibles con cualquier otra procedente por infracción de las normas sobre tráfico, en particular por vulneración de señales de dirección prohibida.

Las sanciones del tipo A y B podrán hacerse efectivas con una reducción del 30 por ciento siempre que dicho pago se efectúe durante los 30 días naturales siguientes a aquél en que tenga lugar la notificación del Decreto de incoación del procedimiento sancionador.

El abono de la sanción no supone que el vehículo denunciado pueda continuar en la Zona Peatonal, aplicándose el sistema de horario de accesos y estancia máxima unitaria.

ARTÍCULO 17.- RETIRADA DEL VEHÍCULO.

17.1. De acuerdo con lo establecido en el artículo 71 del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, se procederá a la retirada del vehículo que sin hallarse autorizado para ello se encuentre en el ámbito espacial de la presente Ordenanza.

17.2. En estos supuestos, el interesado no podrá acogerse al derecho de abono anticipado de la sanción a que se refiere el artículo anterior.

17.3. La prestación del servicio de retirada de vehículos de la vía pública, así como la estancia del mismo en los depósitos municipales devengarán las tasas previstas en la Ordenanza Fiscal correspondiente, que serán satisfechas antes de la devolución del vehículo y sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran imponerse.

DISPOSICIONES ADICIONALES**PRIMERA.**

La Alcaldía-Presidencia podrá dejar en suspenso, en la totalidad o no de su ámbito territorial, la aplicación de la presente Ordenanza durante los periodos o días que se crea conveniente u otras circunstancias de interés público.

SEGUNDA.

La Alcaldía-Presidencia, cuando concurran razones de urgencia u otras de interés público, debidamente justificadas, podrá modificar -prorrogando o reduciendo-, el plazo de vigencia de las tarjetas a que se refiere la presente Ordenanza.

DISPOSICIONES FINALES**PRIMERA.**

La presente Ordenanza entrará en vigor a los veinte días de su publicación íntegra en el BOTHA.

SEGUNDA.

En lo no previsto en la presente Ordenanza, en cuanto le sea de aplicación, regirá, con carácter supletorio, la Ley de Tráfico, Circulación de Vehículo a Motor y Seguridad Vial, el Reglamento de Circulación y demás disposiciones de desarrollo.

TERCERA.

Las cuantías señaladas en esta ordenanza para las sanciones, podrán ser revisadas y, en todo caso, trienalmente actualizadas por Decreto de la Alcaldía-Presidencia.

En Artziniega, a 10 de abril de 2013.- La alcaldesa, AGURTZANE LLANO CUADRADO.